

Donostian, 2019ko otsailaren 15ean

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NEURRIEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garin, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, eta Naiara Sampedro Perez, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 98. artikularen babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu dute, 2019-02-11n Ogasun Batzordeak aztertu zituen interpelazioen ondorioz, kontratazio publikoan genero indarkeriaren aurkako neurriak hartzea dela kausa.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den hilaren 11ko Ogasun Batzordean, Domínguez-Macaya zinegotzi ordezkariari galdetu genion Miguel Alonso Belza abokatuak Udaltzaingoarekin zuen aholkularitza kontratuari buruz (genero indarkeriaren ondorioz, prozedura penal batean dagoelako), udaleko Langileen Batzordearen bitartez izan baikenuen horren berri.

Zinegotzi ordezkariak jakinarazi zigunez, legelari hori Udalak kontratatu zuen une jakin batzuetan behar oso zehatzak betetzeko, udal zerbitzu juridikoek ezin zituztelako gauzatu, eta, gaur egun ez du lanik egiten udalerako.

Donostiako Udalak emakumeen aurkako genero indarkeria salatzen dihardu hainbat ekimen direla bitarte: erakunde adierazpenak, mozioak, salaketa kontzentrazioak, isiltasun minutuak, berdintasun planak, genero indarkeriaren aurkako protokoloa edo sentsibilizazio kanpainak, besteak beste.

Aurrekoarekin bat, uste dugu kontratazio publikoa ere badela Udalaren genero indarkeriaren aurkako arbuio irmoa erakusteko tresna bat, publizitatearekin nahiz publizitaterik gabe egindako kontratazio publikoaren baldintzetan txertatzeko modua izan dadin.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari berariaz sar ditzala kontratazio publikoaren baldintzetan genero indarkeriaren ondorioz prozedura judizialetan sartuta dauden pertsonen zerbitzuak kontratatzea eragozteko klausulak.
2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari kontratazio txikietan zerbitzua egingo duten pertsonen zinpeko aitortpen bat eskatzea, genero indarkeriagatik prozesu judizialean sartuta ez daudelakoa.
3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari kontratazio publikoaren baldintzen artean argiro jasotzeko genero indarkeriagatik prozesu judizialean sartuta dauden pertsonekin kontraturiko zerbitzuak zehurtziaz etengo dituela, prozeduren berri izan bezain laster.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.

Sinatua: Naiara Sampedro Pérez,
EH Bildu taldeko zinegotzia.